

## **MERMERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Merkatuaren segmentazioan gure produktua norentzat bideratuta egongo den adieraziko dugu, hau da, zer pertsonentzat edo zerbitzuentzat eskainita egongo den. Gainera, pertsona eta zerbitzu hauei zergatik salduko diegun zehaztuko dugu.

Guk sortu behar dugun garraioa ez da etxeetan saltzeko bideratuta egongo, baizik eta eremu publikotan eskainiko dira, hortaz 16 urte baino gehiago dituen edonork erabili ahalko du. Gure ustez, definitutako bezeroek herrietatik azkar mugitzeko beharra dute, eta ez dago ezer hobe kutsatu gabe mugitzen badira. Herri bakoitzeko udaletxeak patineteak sailkatzeko lekuak aukeratu ondoren, guk patineteak emango genizkien eta adostutako lekutan instalatuko genituzke. Ondorioz, udaletxea beste bezero bat izango litzake, baina ez gure garraioa erabiliko dutelako, baizik eta patineteak erosiko gaituztelako nahi dituzten lekutan jartzeko. Hau guztia esan ondoren, garbi dago gure merkaturik merkaturik masibo bat dela, antzeko behar eta arazoak dituen talde handi batentzat bideratuta dagoelako.

Bestalde, gure harremana desberdina izango da bezero potentzialekin eta udaletxearen artean. Hasiera batean, ez dugu inongo erlaziozko edukiko gure bezeroekin, baino galdera guztiak azaltzeko prest egongo gara gure web orrian. Gure beste bezeroak, udaletxeak izango dira, baina bezero hauekin ez dugu harreman berdina izango. Udaletxeei gure produktua aldaketa klimatikoaren aurka egingo duen produktu bat bezala salduko diegu eta gure patineteak nola lagunduko duen azalduko diegu, gure produktua erostean CO2aren isurketaren murrizketa egongo delako. Gure produktua ez da zehazki udaletxeak erabiltzeko, herrirako izango da, hau da, gure proposamena leku publiko batean jartzea izango litzateke, horrela biztanle guztiok erabili ahalko lukete, noski, udaletxeko edonork ere.

Hasiera batean gure produktua Goierrri eskualdearentzat bideratuta egongo da. Gure produktuaren bilakaera ikusi eta gero gauzak espero bezain ondo badoaz Euskal Herri mailan eskaintzen hasiko gara eta arrakasta edukitzen jarraitzen badugu Espainia mailan eskaintzen hasiko ginateke. Ez dugu nahi Espainia mailan saltzen hasi enpresa berri bat izanda, garrantzitsua iruditzen zaigulako gertuko lekuetan saltzen hastea, bezeroen iritzia jakiteko eta arazoak sortzen bazaizkigu errazagoa delako arazo hauei irtenbide bat ematea gertu egonez gero.